

## Euskal egunkariaren laugarren urtean

*Euskaldunon Egunkaria, 1993-12-05.*

*"Esatea errazago egitea baino"...*

Nahigabe irten zaidan bertsoetarako puntua idatzi eta gero entzun diot doinua! baina bertsolaria falta... eta erantsi diot trakets, ezinbestean:

*"Talenturik ez ordea horrenbesteraino".*

Bertsogile ona izatea bezain zaila da euskal egunkari bat egitea. honetaz hitz eta ahalegin batzuk ere eginak dituzten euskaldunek badakite hau. Euskal herria ez da handia, garen pixkak ere mendez mende erdaraz eskolarazi gaituzte, eta euskaraz irakurtzea debekatu. Antiespainol pekatu mortala. Azken hamabost urte hauetan lortu ditugun eskubide demokratiko urriak direla eta, izan dugu euskaldunok demokrazian jaurlaritza bat osatzeko zorionik ere. Espero genuen herriaren aginte honek denontzat balioko zuela, baina euskaldunon artean lortutako gehiengoarentzat bakarrik dela esan, eta egin! digute, gutxiengoaren eskubide demokratikoak batere kontuan eduki gabe. hala, ezerezetik... ezerezetik ez, aintzinako "Zeruko Argia"tik gazteek berritutako "Argia" izan den eskolak formatu dituen kazetarien buru eta eskuetatik, berez bezala, laguntzaile bihoztunek egunkari hau sortu dutenean, garai eder hauetan hain zuzen, jarri dizkiote euskal agintariak legezko nahikeriaz mila katramila eta euskaldunari uka erdarazkoei ere luzatzen dizkieten publizitateko dirua.

Herri osoarenak, gutxiengoarenak ere! diren sosak noski.

Ez zen herri honetan inoiz honelakorik ikusi, baina ikusi behar zuen noizbait eta ikusi dugu "Egunkaria Sortzen" taldekoak eta herri osoak.

Hemen lanean hasteko ez zitzaion inori karnetik eskatu, etorri ziren euskaltzaleak heldu ziren, gauzak gertatzen diren moduan, eta kanpoan sentitu diren batzuek haserre handiz aurpegiratu ziguten geuk egindakoa taldekeria bat izan zela... eta tartean auskalo nor zegoen barruan gordeta! Lehen "H" zen, gaur EGUNKARIA. Nire lehengo eta oraingo lekukotasunak ezertarako balio badu: hau ez da egia, guk egin genituen zabaltasunaren alde ahalegin guztiak eta idatziz, finko, jarri genituen, gainera. non zeuden beroiek egin zenari lagundu eta gu bezala sortzaile izateko garaian, eta gu bezalaxe agintean, aginte honek inolako dirurik edo ondorio ederrik ematen ez zuen hartan?

Maliziari dagokionez, gure artean egon daitekeenik ere egongo da herri honetako beste erakundeetan!

Hemen Buesa nor eta zertarako den da kontua.

Beno, hau orain hiru urteko historia zaharra da, honez gero pasa dira, egunak eguna gainean duela, Euskal Herri osoan hiru urtez egunero EGUNKARIA kaleratzeari hutsik egin gabe; herriak badaki, beraz, egin duguna zer den; egin ez dena ere bai; eta orain sartu gara, abenduak 6, laugarrenean.

Hara titulu honen funtsa.

Egia da bitarte honetan izan ditugula gorak eta beherak, maldatsuak diren bideetan gertatzen diren legez. Handiena, Joxemi Zumalaberen heriotza. Umezurtz sentitu gara geroztik, hortz-karraskak ekarri zizkien Maddi eta Jon bezalaxe. Hala ere bideratuak utzi zituen errepostuak, eta hemen goaz laugarren urteko pausu hau ematera. itxaropen herri batekin: politika aldetik lehen aldiz bildu dira agintean daudenak gutxiengoarekin, eta badirudi Legebiltzarrak hartu duela asmo itxaropentsu bat: elkarren artean, eta denon errespetoan, EGUNKARIA egiteari segida emateko laguntzaren hitza.

Ez da milagroa, baina kasi!

Zergatik ez gara, bada, poztuko honelako une historiko baten aurrean?

Zailena egina dagoela dirudi borondatezko elkartasunarekin. Orain "nola"-ko hau zaigu gauzatzea falta. hemen behar dira, gutxienez, buruaz gain bihotzaren ondoan, egindakoa errespetatzeko eta ondoren datorren bidea elkarrekin egiteko zabaltasun apur bat. Honetan gaude orain. Egindakoa ez da gutxi, baina falta dena, helmugaren bidean euskara maite dugun guztiok akordioa gure historia luzeko lehen euskaldunon egunkaria indar berrituz irtetea, da EGUNKARIAren eta euskararen beharra, behar gordina.

Orduan izango du egiazko indarra.